

INBERTSIO PUBLIKOA HANDITU BALIABIDEZ HORNITU



www.lab.eus
/langileen-alde-hemen-erabaki/

- > Lan zamak arindu
- > Gazte berritze neurriak adostu
- > Ordezkoen araudia berritu
- > Plantillak esleitzeko irizpideak adostu
- > Lizentzia eta baimenak hobetu
- > EPE eredia negoziatu
- > Lan osasuna bermatu
- > Administrazioarekin harreman zuzena



Heziketa Berezia
LANGILEEN ALDE
hezkuntza publikoa indartu
hemen erabaki

LAB¹

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

LANGILEEN ALDE

lan eta bizitza duinak

hemen erabaki

Euskal langileen lan eta bizi baldintzak duintzeko borroka indartzera goaz ikasturte honetan LABetik. Prekariatatea borrokatzeko neurri zehatzak planteatu ditugu horretarako: 1.600 euroko gutxieneko soldata langile guztientzat, 30 orduko lanaldia eta zerbitzu publikoak indartzea. Neurri egingarriak dira, horretarako borondaterik bada. Horregatik, Jaurlaritzari eskaera zuzena egin diogu, enplegu publikoa sortu eta dagoena egonkortu dezan, balia bideak handitzeko, ratioak hobetzeko eta pribatizatutako zerbitzuak lehengoratzeko, besteak beste.

Arlo publikoan lehenasunezko eremuen artean dugu hezkuntza. Euskal Eskola Publiko Komunitarioa edota Euskal Herriko hezkuntza-sistema burujabea - sare publiko bakar eta deszentralizatua- eraikitzeko bidean eskumen gehiago behar dugu, euskararen normalizazioaren aldeko lege eta araudi berriak, eta eskola publikoa sistemaren ardatz bilakatzea. Horren alde lanean ari gara Heziketa Bereziko LABen ere, asko dugu esan eta aldarrikatzeko.

HEZKUNTZA PUBLIKOA INDARTU!

Kalitatezko hezkuntza publiko bat izateko inbertsio publikoa handitu, Heziketa Berezia baliabidez hornitu eta langileon lan baldintzak hobetu behar ditu Hezkuntza Sailak. **Heziketa berezian hartu beharreko neurriak:**

> INKLUSIOAN INBERTITU

Benetako inklusioa ahalbidetuko duten aurrekontuak handitu azpiegituretarako, formakuntzarako eta baliabideetarako. Heziketa Bereziari dagokion kolektibo bakoitzaren prestakuntza berezitua garatu eta langileen eskura jarri.

> PLANTILLAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK ADOSTU

Heziketa Bereziko kolektibo guztien plantillak aztertu, horiek esleitzeko irizpideak ezartzeko. Horretarako, kolektibo guztien funtzioak aztertu behar dira

eta baliabideak emateko irizpideak negoziatu behar dira. Hezkuntza Laguntzako Espezialisten, Okupazio Terapeuten, Fisioterapeuten eta Zeinu Hizkuntza Interpreteen ikasleen ratioak zehaztu behar dira.

> **BEHIN BEHINEKOTASUNA GUTXIENEZ %5ERA JAITSI ETA LANALDI PARTZIALAK MURRIZTU**

Lanaldi erdiko lanpostuak salbuespena izan daitezten, lanaldi erdiko plazak lanaldi osoko plaza bihurtzeko plan bat negoziatu. Sektoreari egonkortasuna emango dion LEP prozesuak 3 urtean behin gauzatu eta hurrengo LEP ereduak negoziatu.

> **1600 EUROKO GUTXIENEN SOLDATA**

Bizitza duina eta erosahalmena bermatzeko gutxiengo soldata langile guztientzat.

> **ORDEZKOEN** lan baldintzak hobetuko dituen **ARAUDIA** negoziatu eta adostu.

> **LANGILE GUZTIAK EUSKALDUNDU ETA LANPOSTU GUZTIEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA BETE**

Langile guztiak euskalduntzeko planak egin eta gauzatu, lanpostu guztiek hizkuntza eskakizuna bete dezaten.

> **LAN OSASUNA BERMATU**

Heziketa Bereziko kolektibo guztien lan arriskuen azterketa berria egin faktore psikosozialak, faktore ergonomikoak eta genero-ikuspegia kontuan hartuta, eta, osasuna dela eta, lanpostua egokitzeko/aldatzeko klausulak ezarri.

> **ZAINTZARAKO LIZENTZIA ETA BAIMENAK ZABALDU**

Kontziliazio errealak
bultzatzeko neurriak
aplikatu. Familia eredu
tradizionala zalantzan
jartzeko urratsak egingo
ditugu, binkulograma
sozioafektiboaren* inguruko
proposamenak landuz..



> 30 ORDUKO LAN ASTEA DENENTZAT

Zaintza lanak kolektibizatu, enplegua banatu, lan eta bizi baldintzak hobetu eta lan osasuna zaintzeko helburuz, jardunaldia murriztu, 30 orduko lan astea proposatuz. Asteko ordu kopurua jaisteaz gain, urtekoa murriztea ezinbestekoa da.

> HEMEN ERABAKI

Madrilen ezartzen diren mugak eta ostean funtzio publikoko langileen mahai orokorrak ezartzen dituen mugak (soldata, errelebo kontratuaren baldintzak,...) gainditu eta hemen erabaki. Galdutako %20ko erosahalmena gainditu eta %10a orain berreskuratu.

**Binkulograma:* familia nuklear heteropatriarkalaren logika gainditu eta ahaidetasun harremana duten kideez gain, bestelako binkulazio emozionala edota soziala izan dezaketen pertsonak zaindu ahal izateko zaintza-neurria.



LAB¹

EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA